



C1 maila | **Idazmen-proba**



Idazmena

Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxienerako hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **90 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

C1 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen arabera lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anafarak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Izarrak on-line

Egoera:

Duela egun batzuk Influencer-en fenomenoari buruzko artikulu bat irakurri zenuen webgune batean. Interneti eta sare sozialei esker –Youtube, Instagram...– izar bihurtzen dira, batez ere gazteen artean. Askok erreferentetzat hartzen dituzte, eta haurrek ere youtuber izan nahi dute jada.

Eginkizuna:

Idatzi gaiari buruzko artikulua, herriko gazte-talde batek kudeatzen duen blogean argitaratzeko. Bertan, eman Interneteko izarren fenomenoari buruzko zure ikuspegia. Azaldu gazteak haien jarraitzaile izateko arrazoiak; argudiatu zein diren fenomenoaren abantailak eta arriskuak; eta ohartarazi jarraitzaileengan izan dezakeen eraginaz.

Lagungarriak:

- Izarrak lehen telebistan; orain Interneten eta sare sozialetan.
- Askotariko gaiak: bideo-jokoak, mugikorrak eta tresna elektronikoak, arropa, modako produktuak...
- Gaztetxoengana iristeko zuzeneko kanalak, elkarreragina, gertutasuna...
- Marka handientzat negozio da jarraitzaile ugari dituzten pertsonak kontratatzea euren produktuak erakusteko.
- Edukiak batzuetan gaitzesgarriak, adingabeek helduen kontrolik ez...



2. gaia: Telebistako aurkezleak: profesionaltasuna ala irudia?

Egoera:

Telebistako emakume-aurkezle gehienak gazteak dira. Adin batera helduta, kamera aurrean lan egiteari uzten diote, eta beste aurkezle gazteago batzuek hartzen dute euren tokia. Datuak argiak dira: 35 eta 49 adin-tartean dago albistegietako emakume-aurkezleen % 100; gizonei dagokienez, ordea, 50 eta 64 adin-tartean dago % 97.

Eginkizuna:

Bizi zaren tokian ere jokabidea antzekoa da ikusle-kopuru handiena duen telebista-kate publikoan. Hala, telebista-kateko zuzendariari gutuna idaztea erabaki duzu, jokabide horri buruzko zure iritzia emateko. Gutunean azaldu egoera, arrazoitu gazte-itxura profesionaltasunaren gainetik jartzearen ondorioak, eta proposatu egoera aldatzeko neurriak, horretarako argudioak emanaz.

Lagungarriak:

- Batzuek takoi altuko zapatak, minigonak eta eskoteak; besteek trajea eta kirol-oinetakoak.
- Eskarmentua adinari lotuta: sinesgarritasuna, jarraitzaile fidelak, kalitatezko saioen bermea...
- Profesional hobeak izan litezkeenak itxuragatik baztertu; telesaioen kalitate eskasa...
- Emakumeekin bakarrik egiten da; jokabide diskriminatzailea da.
- Telebista publikoaren ardura soziala.

